



**EBAZPENA, 2020ko martxoaren 30koa, Hezkuntza Berriztatze zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsoriala duten eta 2019-2020 ikasturtean eskolatuta dauden eta ezohiko epean eskaera gauzatu duten ikasleen eskola-garraiorako banakako diru-laguntza deialdia.**

2019ko ekainaren 12ko Hezkuntzako sailburuaren Aginduaren bidez eskola-garraiorako banakako diru-laguntzetarako deialdia egin zen desgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala duten ikasleentzat, baldin eta eskolatuta badaude etxebizitzaren arabera dagokien ikastetxe publikoan edo Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak esleitutako itunpeko ikastetxe pribatu batean eta ezin badute saileko eskola-garraioa erabili 2019-2020 ikasturtean.

Eskaerak aurkezteko epe orokorra amaiturik eta behin aztertu ondoren 2019ko azaroaren 7ko Hezkuntza Berriztatze zuzendariaren Ebazpenaren bitartez eskatutako laguntzak ematea edo ukatzea ebatzi zen.

Gerora, bertan zehazten diren inguruabarrak gertatzen direnean eskaerak aurkezteko eta emandako zenbatekoa zenbatzeko ezohiko epe bat irekitzen duen deialdiaren 8. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eskaera berriak aurkeztu dira.

Eskaerak guztiak Aginduan xedatutakoaren arabera aztertuta, honakoa

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ezohiko epean eskaera gauzatu duten eta Hezkuntzako Sailburuaren 2019ko ekainaren 12ko Aginduan ezarritako baldintzak betetzen dituzten ikasleei garraiorako banakako diru-laguntzak ematea. Eranskinean eskatzaileari emandako zenbatekoa adierazita dago.

Bigarrena.- Honako Ebazpena interesdunari jakinaraziko zaio. Ikasle eskatzailea matrikulatuta dagoen ikastetxeko zuzendariari bidalitako komunikazioaren bidez, diru-laguntzen ebazpenaren berri emango da eta eskatzaileari emandako zenbatekoa zehaztuko da.

Hirugarrena.- Hezkuntza Berriztatze Zuzendariaren 2019ko azaroaren 7ko Ebazpenaren, ez ohiko epeko 2019ko azaroaren 14ko, urtarrilaren 28ko eta 2020ko otsailaren 17ko Ebazpenaren Eranskina aldatzea. Ebazpen horiek desgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala duten eta 2019-2020 ikasturtean eskolatu ziren ikasleentzako eskola-garraiorako banakako esleipenen deialdia ebatzi dute. Aldaketa honen bidez, ebazpen honetan txertatu nahi dira aitorturiko laguntzaren onuraduna denari emandako zenbatekoa.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez daiteke Hezkuntzako sailburuordearen aurrean, jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 30n

  
Lucía Torrealday Berrueco,  
HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA

ANEXO / ERANSKINA

BIZKAIA:

KODEA CÓDIGO	IKASTETXEA CENTRO	ESLEITUTAKOA ASIGNACIÓN
015307	IES FRAY JUAN DE ZUMARRAGA- DURANGO BHI	694,77 €